

# Olaziregi: «Euskal literaturaren ikerketan lan asko dago egiteko ikuspegi feminista batetik»

*Emakumezko euskal literaturari buruzko azterketa liburua argitaratu berri da*

Jon Eskisabel / Donostia

**Bartzelonako Anthropolos argitaletxeak *Breve historia feminista de la literatura española (en lengua catalana, gallega y vasca)* liburua argitaratu**

**berri du. Euskal literaturari dagokion atalean, bederatzi emakumek mende honetako gure poesia, nobela edota bertsoari buruz emakumearen atxiki izan zaion rolaren azterketa orijinala, sakona eta zenbait kasutan pole-**

**mikoa ere egin dute, Mari Jose Olaziregi koordinatzaileak dioenez. Besteak beste, Lourdes Otaegik, Aurelia Arkotxak, Eukene Martinek, Amaia Iturbidek eta Carmen Larrañagak parte hartu dute liburuan.**

LIBURUAREN hiru ataletatik, euskarazko literaturari dagokionak suertatu da luzeena. Batetik, azken urteetan euskal literaturaren inguruko emakumeek egindako ikerketak asko ugaritu dira, eta zeriak izan du horretan, baina, bestetik, Mari Jose Olaziregiren temari esker zor zaio. «Gure atala luzea izatea nahi nuen. Iris M. Zavala liburuaren koordinatzaileak galdetu zidan ea bazeuden euskarazko emakume idazleak eta ikerlariak, erronkatzat hartu nuen erakustea badaudela, asko direla eta onak gainera», azaldu digu EHUKo literatur irakasleak.

Kopuruan ez ezik, orain arte argitaratutakoa gaitutuko zuten ekarpenak biltzen ere saiatu da Olaziregi, eta lortu duelakoan dago. «Artikulu bilduma orijinala da oso, berria eta ezberdina. Alderdi askotatik aztertu dugu emakumearen rola euskal literaturari. Xabier Lizardi, Jon Mirande edota Txomin Agirreraren obraren gainean orain arte egin ez den irakurketa bat eskaintzen dugu. Lan batzuk luzeak eta oso sendoak dira, eta ekarpen berriak egiten dituzte».

Horien artean Carmen Larrañagak bertsoari buruz eta emakumeen arteko harremanari buruz idatzitakoak nabarmendu du Olaziregik. «Zer pentsatu handia ematen du, eta hautsak harrotuko ditue-



GARI GARAIALDE

Mari Jose Olaziregi koordinatu du euskal literaturari dagokion liburuko atala.

la espero dut». Arantzazu Loizidiren kasua abiapuntutzat hartuz, bertsoari buruzko estereotipoa gizonetara mugatuta dagoela salatzen du Larrañagak estilo zuzenean idatzitako artikuluan.

## Emakume irudiak gizonetara obran

Linda Whitek XX. mendeko emakume idazleentzako hurbilpen historikoa egiten du, eta ateratzen duen ondorioa da uste baino emakume idazle gehiago daudela, eta errazago dutela gizonen historiari sar- zeko emakumeek baino, zen-

## MARI JOSE OLAZIREGI

■■■ «Liburuan bildutako artikuluek ekarpen orijinala eta sendoa egiten dute, eta zer esana emango dute»

bait kasutan obra bakarra idatzi arren.

Lourdes Otaegik eta Ana Toledok Lizardiren eta Txomin Agirreraren obraren ageri den emakume irudia aztertu

dute, hurrenez hurren. Bi kasuetan, «oso rol markatua ageri da: amak, fededunak eta ohituren gordetzaileak dira», dio Olaziregik.

Aurelia Arkotxak Jon Miranderaren *Haur besoetako*aren gainean idatzitako artikulua ere azpimarratu du Olaziregik. «Oso artikulua landua eta interesgarria da, mito eta arketipoetan oinarritutako kritika egiten du, sinboloak interpretatzen ditu...».

Eukene Martinek azken 25 urteetako haur eta gazte literaturako pertsonaia femeninoak aztertu ditu datu zientifikoekin, eta ondorioa «asal-

dagarria da», Olaziregiren usteetan. «Gehienetan rola objektu dira, ez subjektu, ama eta amona asko, lanbide gutxi. Rol maskulino eta femeninoak nahiko sexistak dira».

Amaia Iturbidek bost emakumeren poetikak jorratu ditu: Tere Irastorza, Aurelia Arkotxa, Maria Jose Kerejeta, Itxaro Borda eta berarena. Igone Etxeberriak mende hasierako euskal idazleak aztertu ditu, eta batez ere *Urtasus*-en kasua. Olaziregik interesgarria deritzo, «gutxitan aipatzen delako emakumeek mende hasierako kulturean izan zuten rola garrantzitsua».

Azkenik, Olaziregik berak Mariasun Landaren lanaren errepaso egin du, eta kanpoko literaturarekin parekatu du. Eusko Ikaskuntzan euskaraz argitaratutakoaren gaztelaniazko moldaketa da. «Artikulu probokatzailea da, haur literaturaz eta emakume batez ari den heinean», adierazi du.

Liburuaren izenburuak edukia feministatzat jotzen badu ere, Olaziregik ez du uste artikulua guztiak horrela definititu daitezkeenik. «Batzuk argi eta garbi jo daitezke feministatzat, aldarrikapen ukitua dutelako, Linda White, Carmen Larrañaga edota nirea kasu, baina beste batzuk femeninoak direla esan genezake». Kuriositatez irakurriko den liburua izango dela uste du Olaziregik, eta ziur da ez dela azkena izango. «Hau hastapena da, etorriko dira liburu gehiago, asko dagoelako ikuspegi feminista batetik ikertzeko, eta momentua hau dela uste dut gainera».

Bestetik, Anthropolos argitaletxeak antzeko liburu bat baina euskal literaturari buruzkoa soilik egiteko interesa agertu dio Olaziregiri. «Bilduma honetarako izango litza-teke, eta sentsibiltate femenino-feministaz idatzitako artikuluek bilduko lituzke, gizonetara obran zein emakumeetara».

## IRAGARKI MERKEAK 943 300 222

**OSTIELA!**

Sexualitate guztiak

**TV KILLERS**

400 pzt. - 400 pzt. - 400 pzt.

OSTIELA! Aldizkariaren 18. alea kalean!

**OSTIELA! ALDIZKARIAREN 18. ALEA KALEAN!**

"Komiki kutsua nagusi" *Euskal organu-eragilean*. Kultur hiru-hilabetekari honen gai nagusia: KOMIKI MUNDIALAK. Aldizkari satirikoi honetako erdi-monografiakoan, Prosper Merimée, Abuli/Bernet (Tordito), Wolinski, Vuillemin, Al Voss, Paul Kirchner, Rober Garay, Asisko, e.a.-en komikiak. "Carmina Burana: demassazkoa!", Patty Hearst eta S.L.A., G.G. Allin: gorrotatua izateko jaiotako rockero destroya, Dedalo & Ikaro (Maskarada), Fonollosa poeta katalan "galduta"... Joxe Azurmendi, Jon Arano, Juanbau Erauskin, Koldo Goitia, Gotzon Herrosilla, Jon Imanol Iturrioz, Mikel Markez, Uzkian Pot, Kapo Urrutia, Iban Zaldia, e.a.-en lirika berezia.

Komunikabide-galdien sasoi hauetarako, "ganorabako ostixe" eros!

Merke-merke, 400 pzt. -n salgai E.H. osoko liburutegia eta kioskoetan. Urteko harpidetza (4 ale) 1.600 pzt. (ale "atzeratuak" erdi-prezioan). Esku ezazu Ordiziako 131 p.k.-ra edo deitu (edo idatzi) 943-161835 tfno./faxera. ostie-la@autovia.com

**OSKORRI**

KONTZERTUTARAKO TELEFONO BERRIA 944 47 88 40

**OPORRAK BELAUNTZIAN**

12m. luzera

**UDAKO ITSASKETAK**

**IRAILA**

**BALEARRETA**

2-15era 3 PLAZA

17-30era 3 PLAZA

630.03.08.98

**31 x 33 mm**

**MODULO**

(Iparraldea)

Eguna: 92 l.

Astea (6 egun): 85 l.

2 aste (12 egun): 72 l.

Hilabetea (24 egun): 57 l.

**66 x 33 mm**

**2 MODULO**

(Edizio orokorra)

Egun: 6.000

Astea (6 egun): 4.600

2 aste (12 egun): 4.200

Hilabetea (24 egun): 3.000